

EUROPAR KOMUNITATEEN JUSTIZIA AUZITEGIA

Hautaturiko erabaki batzuen kronika (1)

Joxerramon Bengoetxea (2)

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.42.1995.10>

I. Jurisdikzio osoko epaiak (Errekurtso zuzenak)

1. Batzordea Espainiaren aurkako afera: Europar Komunitateen Batzordea Espainiako Erresumaren aurka, 1994-12-6ko epaia, C-277/93, aferan (Osoko Bilkura, Plenum tipia, zazpi kidekoa, Edward epaile txostengilea, Tesauro Abokatu Orokorra);

(Establezimendu- edo kokatze-eskubidea, zerbitzuen ematea askea, sendagileak, espezialistak, formakuntza denboraldiak, formakuntza ordaindua).

II. Epai-aurreko galdaketak, 177. artikulua araberako epaiak

2. Johnson-II afera: Elsie Rita Johnson-en eta Chief Adjudicaron Officeren artean, 1994-12-06ko erabakia, C-410/92 aferan (Osoko Bilkura, bederatzi kidekoa, Rodriguez-Iglesias epaile txostengilea, Gulmann Abokatu Orokorra) (Gizonezkoen eta emakumezkoen tratu berdintasuna gizarte segurantza gaietan, Estatukideen prozedurazko denbora mugak).

3. Van Munster afera: Simón J. M. van Munsteren eta Rijksdienst voor Pensioenenen artean, 1994-10-05ko erabakia, C-165/91 aferan (Osoko Bilkura, hamahiru kidekoa, Edward epaile txostengilea, Darmon Abokatu Orokorra); (Segurantza soziala, langileen mugimendu askea, Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, jubilazio pentsioa, ardurapeko ezkontkideagatiko pentsio igoera).

(1) Kronika honetan erabaki dut HAEEK egindako Europako Itunen terminologia kasu batzuetan ez jarraitzea, ez bainago ados horren proposamen guztiekin; halere saiatu naiz lan horretan agertzen diren terminoak kontutan edukitzean, egoki iruditu zaizkidanean.

(2) Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra/Justizia Auzitegiko letratua. Lan honetan agertzen diren eritziek ez dute dagokion Erakundearen iritzia ordezkatzen, egilearenak baizik.

III. Helegiteak

4. X, Batzordearen aurkako afera: X, Bruselako Union Syndicale eta Fédération Internationale des Droits de l'Homme lagundurik, Europar Komunitateen Batzordearen aurka, 1994-10-05ko epaia, C-404/92 P aferan (Osoko Bilkura, hamaika kidekoa, Zuleeg epaile txostengilea, van Gerven Abokatu Orokorra);

(helegitea, Komunitateen behineko langilea, kontratazioari uko egitea gaitasun fisiko ezean, kontratatu aurreko azterketa medikoa dela eta osotasun fisikoari egindako eraso).

5. Publishers (NetBook) afera: The Publishers Association, Clé The Irish Book Publishers Association eta Booksellers Association of Great Britain and Ireland lagundurik, Europar Komunitateen Batzordearen aurka, Pentos ple eta Pentos Retailing Group Ltd, lagundurik, 1995-01-17ko epaia, C-360/92 P aferan (bosgarren aretoa, hiru kidek sinaturik, Rodríguez-Iglesias epaile txostengilea, Lenz Abokatu Orokorra);

(helegitea, lehiaketa, liburuetako beharrezko salneurrien sistema, 85, 3 artikulua araberako exentzio baimenaren eskaera errefusatu, lehiaketa murrizketen ezinbestekotasuna).

Aurkezpena

Kronika honetan oso ezberdinak diren bost aferak sartzen dira. Guztiak Auzitegiaren transizio une berezian erabakiak. Jakina denez Auzitegiko kideak 6 urterako izendatzen dira, Auzitegia hiru urtero berriztatzen delarik. 1994-10-07an Auzitegi erdiaren berrikuntza gertatu da. Zuleegen ordez Hirsch epailea izendatu du Alemaniak, Grevisse epailearen ordez Puissochet izendatu du Frantziak, Due presidenteak 1997. arte zeukan epaile aldia utzi zuen eta bere ordez Danimarkak Gulmann Abokatu Orokorra epailea izendatu du (Elmer Abokatu Orokor daniarra berria delarik). Diez de Velasco hamahirugarren epailea izaki, hamahirugarren epailearen txanda Italiari zegokion. La Pérgola izendatu delarik. Darmon Abokatu Orokorren ordez Frantziak Léger izendatu du, van Gerven belgiarrari agintaldia amaitu zaionez Greziaren txanda izan da eta Kosmas izendatu du Abokatu Orokorra.

Beste kidei dagokionez, batzuek agintaldia 1997a arte daukate (Rodríguez Iglesias, Moitinho de Almeida, Kakouris, Schockweiler, Joliet, Murray, Jacobs eta Lenz) edo 2000. urtera arte berrizendatuak izan dira (Edward, Kapteyn, Mancini, Tesauro).

Bestalde Komunitateetan Estatu kide berriak sartu dira. Auzitegiari dagokionez, zabalkuntza horrela gertatu da, 1995eko Urtarrilaren 18tik. Austriak Jan epailea izendatu du (2000ra arte), Finlandiak Sevón epailea 1997ra arte eta Suediak Rangnemalm epailea 2000ra arte izendatuz. Hamabost Estatukide

direnez, aurreko hamahirugarren epailea ez da gehiago behar gehiengoa ziurtatu ahal izateko. Beraz La Périgola hiru hilabetez epaile gehigarria izan dena Abokatu Orokorra izendatua izan da (2000ra arte). Espainiak Abokatu Orokor bat izendatuko du aurrerantzean (Ruiz-Jarabo jauna 1997ra arte), eta hirugarren Abokatu Orokor txandakatua izendatzen dute Estatu kide ttipiek, oraingoan Irlandari egokitu zaiolarik Fennelly izendatuz (2000ra arte).

Beraz kronika honetarako aukeratu diren aferen artean bi dira Auzitegi zaharrak erabakiak ohizko kuorumaz (van Munster eta X), eta beste hiruak Auzitegi berriko kide zaharrak erabakiak (Publishers, bost kideko aretoa hiru kideek sinatua; Batzordea Espainiaren aurka, zazpi kideek sinatua normalean bederatzi direnean, eta Johnson, bederatzi kideek sinatua normalean hamaika edo hamahiru izango lirartekeen bitartean). Sinadura gutxiago egoteko arrazoia zera da, ahozko fasea egin denean, bertan presente izan diren kideek bakarrik daukate aferaz erabakitze aukera, eta hiru kasu hauetan kide batzuk ahozko agerraldian presente egon arren, hau urriaren 7a baino lehenago egin zelako, deliberatzeko orduan joanak ziren eta epaile berriek ezin dute aferaz erabaki ahozko agerraldian ez bazeuden.

1. Batzordea Espainiaren aurkako afera (C-277/93) .

I. Sarrera

Afera hau ez da ezer apartekorik, eta esan liteke erabakia ez dela izan oso komunitatezale, baina Espainiaren zuzenbidea jokoan egon eta medikuntzako ikasleen protestak, ikaskuntzen antolaketa dela eta, entzuten ari direnez orri hauetan azaltzeari interesgarri deritzot.

Lanbideen kasuan, gertatu ohi da, Estatu bakoitzak formakuntza sistema ezberdina aukeratzen duela, eta horren ondorioz Estatu batean medikuntzako titulua lortu duen sendagileak beste Estatu batean sendagile bezala lan egin nahi badu, esaten zaio aurretik Estatu horren araberako titulua behar duela. Formakuntzaren ezberdintasun horiek beraz profesionalen joan etorria traba dezakete, beste Estatu partaideetan kokatzeko edo zerbitzuak emateko aukera oztopatzen zaielako profesional horiei. Horregatik profesionalen kokatze eta zerbitzuak emateko eskubideak bultzatu nahi badira, Europar Komunitateko tratatuko 52. eta 59. artikuluen helburua beteko bada, amankomuneko formakuntzak koordinatzea komeni da, Estatukide ezberdinetan baldintza berdinak aplikatuz. Are gehiago sendagintzaren ka-suan Tratatuko 57. artikuluko hirugarren paragrafoa sendagileen kasuaz kezkatzen baita bereziki; izan ere osakuntza kapitulu honetan aipatzen den lanbide multzo jakin bakarra da, eta horregatik leku berezia hartzen omen du lanbide honek:

"Osagile eta antzeko lanbideetan eta farmazilaritzari dagokionez, mugapenak arianarian ezabatzea, Elkartekide bakoitzean hartan jarduteko

eskatuko zaizkien baldintzen koordinaketaren menpean egongo da".

II. Sendagileei buruzko direktibak

Helburu hori kontuan harturik Batzordeak, beste osakuntza-lanbideen artean, sendagileei buruzko direktiben proiektuak prestatu zituen eta Parlamentuaren oniritziaz Kontseiluak honako bi direktibak hartu zituen 1975-06-16an; "arrezagutza" direktiba 75/362/CEE (AO L 167/1) eta "koordinakuntza" direktiba 75/363/CEE (AO L 167/14). Bi direktiba hauek aldatu eta osatu izan dira denboran zehar (3) eta azkenean batu egin dira direktiba berri baten bidez 93/16/CEE, 1993-04-05koa (AO L 165/1). Direktiba hauek sendakuntzarako lehen mailako (medikuntza orokorra) eta espezializatze ikasketen koordinakuntza eta tituluen arrezagutza aurreikusten dute. Arrezagutze direktibaren arabera Estatu kide batek emandako tituluak arrezagutzen dituzte beste Estatu kide guztiek aurretik koordinakuntza direktibaren arabera formakuntza baldintzak koordinatu direlako. Lehen mailako ikasketen edukia zehaztu egiten da koordinakuntza direktiban.

Espezializazioei dagokienez, badira espezializazio batzuk Estatu kide guztietan ematen direnak, hauek arrezagutze direktibaren zerrendan agertzen direlarik (bosgarren artikulua zerrendan), derrigorrezkoak izaki (laugarren artikulua arabera). Beste espezializazio batzuk aldiz Estatu kide bi edo gehiagoren artean bakarrik arrezagutzen dira (seigarren artikulua arabera), eta orduan espezializazio jakin bakoitzeko zerrenda bat agertzen da arrezagutze direktiban non espezializazio hori ezagutzen duten Estatu kideek espezializazioaren izena beren hizkuntzetan jartzen duten (zazpigarren artikuluko zerrendan). Estatu kideek aukera dezakete beraz espezializazio horiek arrezagutze sistema horren barruan sartu ala ez sartzea.

Azkenik badira beste espezializazio batzuk aipaturiko bi zerrendetan agertzen ez direnak. Hau bi arrazoiengatik gerta liteke: espezializazioa Estatu kide batean bakarrik ezagutzen delako edo Estatu kide batek edo gehiagok espezializazio hori beste Estatu kideekin ez arrezagutzea erabaki dutelako. Estatu kide batek espezializazio jakin bat arrezagutze direktibaren zerrendan ez sartzea erabaki duen kasuetarako arrezagutze direktibak aurreikusten du Estatu kideak beste Estatu kideetan lortutako espezialista tituluak aztertuko dituela banan banan, eta tituludunak daukan esperientzia eta egindako ikasketak kontuan hartuko dituela, espezializazio hori arrezagutzerakoan zortzigarren artikulua arabera).

(3) Kontseiluko 82/76/CEE direktiba, batez ere eranskina (1982ko AO L 43/21), 89/594/CEE direktiba (1989ko AO L 341/19) eta Greziako eta Espainiako eta Portugaleko Komunitateetan sartze baldintzetan.

Koordinakuntza direktibak baldintza amankomunak aurreikusten ditu espezializazio kasuetarako, nagusiki bere bigarren artikuluan. Bertan esaten denez Estatu kideek ziurtatu behar dute, beste gauzen artean, espezialistaren formakuntza denboraldi osokoa izanen dela eta ordaindua izanen dela.

III. Espainiako arauak eta batzordearen errekurtsua

Espainian sendagile formakuntza espezialduari eta sendagile espezialistako tituluari buruzko 127/1984 errege dekretuak bi formakuntza ezberdinen artean bereizten du alegia "ikasle" bezala eta "barrukoa" bezala. Bere eranskinean erietxe baten barman formakuntzarik behar ez duten sei espezializazioen izena dager: Estomatología, Hidrología, Medicina Espacial, Medicina de la Educación Física y del Deporte, Medicina legal y Forense eta Medicina del Trabajo.

1990-07-28ko eta 1991-07-31ko ministeritza aginduen 13 (1) artikulua araberako sei espezializazio horiek "ikasle" moduan egingo dira. Beraz ikasketa tasak ordaindu beharko dute espezialista gaiak eta formakuntza ez da ordaindua izanen.

Sei espezializazio horien egoera ikusita Batzordeak, aurreko bide ez juridikionalak agortu eta gero, EEK tratatuko 169. artikulua araberako errekurtsua aurkeztu du Espainiaren aurka. Batzordearen iritziz koordinakuntza direktibak argi eta garbi agintzen du, bere bigarren artikuluan, espezialistarako formakuntza ordaindua izan behar duela, salbuespenik gabe. Espainiak aldiz dio espezialista gaiaren formakuntza ordaintzearen beharra arrezagutze direktiban Estatu kide bakoitzak espezializazioen zerrendan, bosgarren edo zazpigarren artikuluetako zerrenda hain zuzen ere, sartu dituen espezializazioei dagokiela, baina ez zerrenda horietan aipatzen ez diren espezializazioei dagokienez. Espainiak Batzordearen akzioa onartzen du espezializazio bakar baten inguruan, alegia Estomatologia, Espainiak espezializazio hori arrezagutze direktibaren 7. (2) artikuluko zerrendan sartu baitu. Beraz gatazka beste bost espezializazioen inguruan planteatzen da.

IV. Auzitegiaren epaia

Direktiben edukia eta Espainiako zuzenbidea azaldu ondoren Auzitegiak gogoratzen du Estatu kideak bereziak zaizkion edo arrezagutza direktibaren 7. artikuluko zerrendan ez sartzea erabaki dituen espezializazioen inguruan diskrezioa gordetzen duela espezializazio horiek nahi duen mo-duan arautzeko. Kasu horietan koordinakuntza direktibaren 2. artikuluko baldintzen betetzea ez da ezinbestekoa. Interpretazio honen alde Auzitegiak koordinakuntzaren 2. zio azaltzailea dakar, horren araberako formakuntzazko gutxieneko baldintzak Estatu kide bi edo gehiagoren arteko edo guztien arteko amankomuneko espezializazioei dagozkie bakarrik. Gainera zio hori

ez da ezertarako aldatu 93/16/CEE direktiba berrian. Beraz, epai honetan, zioen azalpeneko esaldi bat direktibaren artikuluko bati nagusitzen zaio, edo mugatu egiten du, eta hau interpretazio irizpide bitxia edo ez ohizkoa da. Interpretazio horren arabera koordinakuntza direktibaren 2. artikuluko baldintzak arrezagutzako direktibaren 5. edo 7. artikuluetako zerrendetan aipatzen diren espezializazioei bakarrik inposatzen zaizkie, eta Espainiak Estomatologiari ere inposatu behar zizkion, horren formakuntza ordainduz. Hori ez egiteagatik Tratatu konpromisoa hautsi du, baina beste bost espezializazioei dagokienez, nola ez ziren zerrenda horietan aipatzen (Espainiaren kasuan) ba Espainiak ez zeukan inolako obligaziorik horien formakuntzak ordaintzeko.

V. Iruzkina

Estatuaren aldeko epaia eman du kasu honetan Auzitegiak. Gauzak honela utzi ditu: Estatu kideek Kontseilu barruan negoziatuko dute espezializazio amankomunen zerrenda. Zerrenda horretan aipatzen diren espezializazio denak Estatu guztiek elkarri arrezagutu behar dizkiete. Estatu kide bi edo gehiagoren artean arrezagutzen diren espezializazioak Estatu horien artean bakarrik arrezagutzen dira. Demagun lan medikuntzaz ari garela. Espezializazio mota hau Estatu bi edo gehiagoren artean arrezagutzen da, zerrenda arrezagutze direktibaren zazpigarren artikuluan dago eta bertan ez dago inon Espainiako Medicina del Trabajo. Beraz Espainiak ez dauka inolako obligaziorik zerrenda horretan agertzen diren lan medikuntzaren tituluak arrezagutzeko. Zortzigarren artikuluko prozedura geldo eta diskrezionala aukeratu du Espainiak kasu horretarako. Honek bidea ematen dio espezializazioa nahi duen moduan arautzeko. Eta aukera honek beste Estatu kideetako lan medikuntzan espezialdu diren sendagileei oztopoa suposatzen die.

Bazegoen beste aukera komunitatezaleago bat, Batzordeak proposatu baina Auzitegiak hartu ez duena. Koordinakuntza direktibak lortu du, bere bigarren artikuluan, Estatu kideetan ematen diren sendagile espezialistako titulu guztiek gutxieneko baldintza amankomun batzuk egiaztatzen dituztela, hala nola formakuntza erietxe edo laborategi batean, ikerketa talde batean sartzea, praktikak egitea, gutxieneko ordu kopurua betetzea, larrialdietan parte hartzea eta, afera honetan gatazkan dagoena, jarduera osoa eta ordaindua. Beraz baldintza horiek edozein Estatu kidek ematen duen edozein espezialistako tituluk bete beharko lituzke, gero espezialista titulu hori beste Estatu kide orotan direktibaren araberrako titulutzat joa izan dadin, eta modu horretan arrezagutza ziurtatuz espezializazioak zerrendan daudenean. Eta ez daudenean, 2. artikuluko ematen dituen baldintzak bete direla jakinda, Estatu kide bat lasai egon daiteke beste edozein Estatu kideetan lortutako tituluak gutxieneko baldintzak betetzen dituela, seriotasuna duela beraz, eta 8. artikulua araberrako arrezagutza aiseago egingo da. Aukera

honen arabera, behin Estatu kide batean espezializazio bat ematen denean, arrezagutza direktibaren 7. artikuluko zerrendan aipatzen dena (beraz beste Estatu kide batzuetan ere ezagutzen dena) edo aipatzen ez dena (Estatu kide horretan bakarrik ezagutzen dena) Estatu kide horrek koordinakuntza direktibaren 2. artikuluko baldintza guztiak bete beharko ditu, formakuntzaren ordainketa barne).

Bigarren aukera hauxe da Espainian Audiencia Nacionaleko 5. saila contencioso-administrativokoa 1994-04-12ko epaian hartu duena Justizia Auzitegia baino ikuspegi eta azterbide komunitatezaleago baten ildotik.

2. Johnson-II afera (C-410/92)

I. Sarrera

Elsie Rita Johnson anderea jadanik bi afera dauzka Justizia Auzitegian, problema berdinagatik. Lehenengoa (1991-07-11ko erabakia, C-31/90 aferan, 1991ko Auzitegiko Bilduma I-3723) sexuagatiko diskriminazioari buruzkoa izan zen. Bigarren hau askoz ere korapilotsuagoa da. Jakina denez zuzenbide komunitariotik jarraitzen diren eskubideak Estatu kideetako zuzenbidean aplikatu eta egikaritzen ohi dira barruko zuzenbide horien baldintzen arabera, zeinen artean formazkoak edo prozedurazkoak bereziki garrantzitsuak diren, eta zeinen arabera eskubideak praktikan gauzatzen diren. Gauzatze hori dela eta kezka sortzen da barruko Estatu zuzenbide prozesalak zuzenbide komunitarioari zer nolako tratamendua ematen dion. Esate baterako, zer gertatzen da barruko prozedurek zuzenbide komunitarioan oinarritutako eskaera bat eragozten badu? Justizia Auzitegia kezka honi ikuspegi juridikotik erantzuten saiatu da Johnson erabakian eta horregatik hain justu azkenalditako erabakirik garrantzitsuenetakoa da.

II. Gertakariak eta aurreko jurisprudentzia

Johnson andereak 1970 arte lan egiten zuen. Urte hartan lana utzi zuen bere sei urteko alabaz arduratzeko. 1980an berriz lana bilatzen hasi zen, baina bizkarrean mina hartu eta lana egiteko ez gai aitortua izan zen. 1981ean NCIB (Non contributory invalidity benefit) edo elbarri ordainketa eskatu eta lortu zuen. Une hartan bere alabarekin batera bakarrik bizi zen. NCIBa ezartzen duen lege britainiarren arabera (1975ko Social Security Act) emakume batek NCIBa jasotzeko eskubidea edukitzeko household duties test delakoa gainditu behar du, alegia frogatu behar du, gizonezko batekin bizi bada, ez dela gai etxeko lanak egiteko. Baldintza hau ez zaie gizonezkoari aplikatzen ordea.

1982an autoritate britainiarrek Johnson andereari NCIBa ordaintzeari utzi egin zioten Johnson anderea gizon batekin bizitzen ari zelako eta ez zuelako betetzen etxeko lanen baldintza (household duties test delakoa), alegia bere elbarritasunak ez zuelako etxeko lanak egiten galarazten.

1984ko irailean Health and Social Security Act lege berria indarrean jartzen da. Lege honek EEKko 79/7 direktiba barneratzen du zuzenbide britainiarrean eta NCIBaren ordez SDA (Severe Disablement Allowance) sartzen da eta lege horren gauzatze Araudiaren 20. artikulua transizio sistema berezia ezartzen du zeinaren arabera SDA 1984an indarrean jarri baino lehenago pertsona batek NCIBa jasotzen bazuen automatikoki SDAa ere jasoko zuela. Bide batez esan beharra dago transizio sistema hori nahiko eskuzabala dela zeren eta SDAa jasotzeko baldintzak NCIBa jasotzeko baino gogorragoak ziren eta beraz pertsona gehiagok jaso zezakeen NCIBa SDA jasoko luketenak baino. Beraz Johnson andereari dagokionez nola NCIB ez zuen jasotzen (etxeko lanen baldintza ez zuelako betetzen, gizonezkoei aplikatzen ez zaien baldintza) ba SDAa ere ez zuen jaso autoritate britainiarren eskutik.

1987ko ekainean Europar Komunitateen Justizia Auzitegiak Borrie Clarke izeneko aferan erabaki zuen SDAaren Araudiaren 20. artikulua Social Security Acteko berezko diskriminazioa jarraitzen zuela bere transizio erregimenean eta beraz 79/7 direktibaren 4 (1) artikulua aurkakoa zela lehenengo arauaren diskriminazioa —emakumezkoei inposatzen zuelako gizonezkoei inposatzen ez zitzaizkien baldintza— ez zuelako konpondu (1987-06-24ko erabakia, 384/85 aferan, 1987ko Bilduma 2865). Direktibaren 4 (1) artikulua inbokagarria zen direktiba barruko zuzenbidea barneratzeko epea amaitu zen une beretik, alegia 1984-12-23tik eta beraz artikulua horren aurkako barruko arauak baztertzekoak ziren. SDAren transizio erregimena (araudiko 20. artikulua) ez zen aldatu ordea.

Auzitegiaren erabaki hori ikusita Johnson andereak ere SDA eskatu zuen 1987ko abuztuan, direktibaren (4) artikulua inbokatu. Baina eskera hori ukatua izan zen Johnson anderea direktibaren pertsona eremutik at gelditzen zelako. Erabaki horren aurkako errekurtsoa ipini zuen Johnson andereak eta Industrial Tribunalak orduan Justizia Auzitegiari galdetu zion ea Johnson bezalako pertsonak, alegia elbarritasuna gertatukoan lanaren bila, baina ez lanean, zeudenak direktibaren eremu pertsonalpean erortzen ziren ala ez. Justizia Auzitegiak 1991ko uztailan goian aipaturiko JohnsonI aferan baietz erantzun eta Segurantza Sozialeko autoritateek orduan, 1991ko abenduan Johnson andereari SDA ematen hasi zitzaizoten. Baina noiztik eman beharko litzaioke SDA? Ikusi dugunez, Clarke aferan Auzitegiak esan zuen direktibaren 4 (1) artikulua 1984ko abendutik inbokagarria zela. Baina noiz inbokatu zuen Johnson andereak? Hiru urte beranduago.

Hemen zuzenbide britainiarraren indarreango prozedurazko erregela batekin egiten dugu topo, 1975eko Social Security Act legeko 165A artikuluko erregelarekin hain zuzen ere. Horren arabera Segurantza Sozialean egiten den eskaera edo erreklamazioa urtebeteko atzeruntzko eraginarekin esleituko da, baina ez gehiago. Johnson andereak 1987ko abuztuan eskatu zuen SDA, eta beraz SDA emango litzaioke 1986ko abuztutik aurrera zuzenbide

(4) Jusqu'au moment de la transposition correcte de la directive, l'Etat membre défaillant ne peut pas exciper de la tardivité d'une action judiciaire introduite á son endroit par un particulier en vue de la protection des droits que lui reconnaisse la directive.

britainiarraren arabera, eta horrela erabaki zuten Social Security Commissionersek 1991ko abenduan.

Baina Johnson-I erabaki zen hilabete berean beste erabaki interesgarri bat eman zuen Justizia Auzitegiak Emmott aferan (1991-07-25ko erabakia, C-208/90 aferan, 1991ko Bilduma I-4269). Bertan Irlandako arau prozesal bat zegoen jokoan, zeinak zuzenbide komunitarioan oinarritutako errekurtsioak epetik kanpo aurkezteko aukera ukatzen baitzuen. Emmott andereak direktibaren arabera zeukan eskubide bat arrezagutzeko akzioa ekarri zuen Irlandan, direktiba barneratu gabe zegoelarik, baina Irlandar arau prozesalak ekintza gertatu eta epe jakin bat pasa ondoren akzioa galarazten zuen. Justizia Auzitegiak esan zuen direktiba Estatu zuzenbidean guztiz barneratu arte, Estatu kideak ezin ziola partikular bati arau prozesal baten denborazko oztopoa jarri partikular horrek direktibatik daukan eskubidea defenditzeko akzioa ekarri duenean (4). Emmott aferan irlandar arau prozesalak direktibaren araberako eskubideen defentsa guztiz galarazten zuen.

Emmott erabakia ikusirik eta Social Security Commissioneren 1991ko abenduko erabakia jaso bezain pronto Johnson andereak erabaki horren aurkako errekurtsioa ezarri zuen Court of Appealen aurrean.

III. Court of Appealen kezkak eta epaiaurreko galderak

Court of Appeal ez dauka oso garbi Emmott erabakiaren hedadura zein den aurrean daukan aferaren gain, eta Justizia Auzitegiari galdetzen dio ea erregela britainiarrak aurreikusitako urtebeteko atzeragarritasunaren muga zuzenbide komunitarioarekin bat datorren ala bestela, inplementazio egokia gertatu arte, direktibaren eragina aitortu behar den hasiera-hasieratik barneko oztopo prozesal guztiak baztertuz.

Bitartean, epai aurreko galderak jaso eta gero Justizia Auzitegiak SteenhorstNeerings erabakia hartu zuen. Ikus dezagun aferaren honen zehaztasunak. 1963tik Steenhorts-Neerings andereak gaitasun-eza pentsioa jasotzen zuen, baina AAW legearen arabera ezkonduko emakumeek ezin zuten AAWren laguntzak jaso beren gaitasun-eza 1975. urtea baino lehenago gertatu bazen. Lege hori diskriminatoriotzat joaz Herri Beheretako Segurantzaren Sozialerako Auzitegi Nagusiak erabaki zuen 1988ko urtarrilaren 5ean 1980. urtetik aurrera ezkonduko emakume orok AAW deituriko laguntzak jasotzeko eskubidea zutela, gaitasuneza noiz gertatu zen begiratu gabe. 1988ko maiatzaren 17an Steenhorts-Neerings andereak AAWko laguntza eskatu zuen eta Estatuak arrezagutu zion 1987eko maiatzaren 17tik, alegia eskaera egin eta urtebete lehenagotik, AAW legeko erregela atzeragarritasunezko

muga hori aurreikusten baitzuen. Baina 79/7 direktiba ikusita AAVVko laguntzak 1984ko abenduaren 23tik, alegia direktiba barneko zuzenbideratzeko epea amaitzen zen unetik jaso behar ziren. Beraz Segurantza Sozialeko Auzitegiak Justizia Auzitegiari galdetu zion ea Herri Beheretako erregela prozesal hori direktibarekin bateragarria ote zen.

Justizia Auzitegiak Rewe (33/76 afera, 1976ko REC. 1989, 5. puntua) eta San Giorgio (199/82 afera, 1983ko Rec. 3595, 12. puntua) jurisprudentzia gogoratu zuen. Direktibetan oinarritutako eskubideak estatuetako prozedurazko erregelen arabera praktikatzen dira. Zuzenbide komunitarioaren ikuspuntutik barneko erregela horiek bi baldintza bete behar dituzte baliozkoak izateko: berdin tratatu zuzenbide komunitarioan eta barneko zuzenbidean oinarritutako eskaerak eta zuzenbide komunitarioko eskubideen defentsa alferrikakoa ez dadila. Baldintza horiek betetzen dira. Auzitegiak gehitu zuen Emmott afera benetan bereizgarria zela zeren eta afera horretan ezinezkoa zen ezta eskaera aurkeztea ere zeren eta epea pasatuta zegoen. Steenhorst-Neerings aferan jokoan zegoen erregela ohizkoa da segurantza sozialean, administrazio ona ziurtatzen duen erregela da eta oreka finantzaria bermatzen du.

IV. Justizia auzitegiaren erabakia

Lehen lehenik Auzitegiak printzipio orokorra gogoratzen du: direktibetan ezagutzen diren eskubideak Estatu kideetan barneko zuzenbidearen arabera egitaratuko dira. Rewe jurisprudentziaren baldintza bikoitza gogoratzen du segituan, bai Steenhorst Neerings eta bai Emmott aferen aipu eginaz, eta bi baldintzak betetzen direla baieztatzen du. Hori egin ondoren Emmott afera bereizteari ekingo dio Auzitegiak, horretarako Steenhorst-Neerings aferan egindako bereizketa berretsiz: eskaera ekartzeko epe mugak ezinezkoa egiten zuen direktibak ezagutzen zuen eskubidearen defentsa (tratu berdintasuna); direktiba ez zen irlandar zuzenbidera barnerratu eta hala ere eskaera epez kanpo aurkeztu zela esan zioten Emmotti. Steenhorst-Neerings aferan ordean eskaerak ekartzeko aukera ez zegoen jokoan: partikularrek posible zuten epailaren aurrean direktiban oinarritutako eskubideak aldarrikatzea, baina laguntza jasotzerakoan atzeragarritasun muga aplikatzen zen.

Johnson saiatu zen Steenhorst-Neerings aferaren eta berearen artean bereizten. Eta Auzitegiak Steenhorst-Neerings erabakiaren precedentezko indarra baieztatzeke bi aferen arteko antza frogatzeari ekingo dio. Egia da Johnson andereak daukan laguntza eta Steenhorst-Neerings andereak zeukana ez direla berdinak, baina biei aplikatzen zaien atzeragarritasunaren muga erregela berdina da eta erregela horrek ez du beren eskubideen egikaritzea ezinezko egiten, eta horregatik ez da zuzenbide komunitarioaren aurkako.

V. Iruzkina: denboraren garrantzia zuzenbidean

Afera honek erakusten digu arazo juridikoak nola korapilatzen diren eta zuzenbide komunitarioa eta Common law sistemak zeinen antzekoak diren precedenteari ematen zaion garrantziaren inguruan. Afera honetan Steenhorst-Neerings benetan precedente bezala funtzionatzen du, baina erabaki hori ere beste askoren gainean eraikitzen da. Clarke erabakia atera zenean Johnsonek bere lehen eskaera aurkeztu zuen erabaki horretan oinarrituz. Justizia Auzitegian erabaki zen Johnson anderea direktibaren pertsona eremuan sartzen zela, eta beraz Britainiar autoritateek Clarkeko erregela aplikatu behar zioten SDA emanez. Baina bere SDA jasotzeko eskubidea eskaera egin eta urtebete lehenagoko atzeragarritasunarekin bakarrik ematen zioten. Orduan Emmott erabakia atera zen, hau ere beste afera baten ondorio bezala (McDermottand Cotter, 286/85 afera, 1987ko Rec. 1453. orr.) eta Johnsonek berriz erabaki horretan oinarritu nahi du bere burua atzeragarritasuna urtebetera mugatzen duen erregela britainiarraren aurka jotzeko. Baina bitartean SteenhorstNeerings erabakia agertu zen, eta horrek ñabardura gehiago jartzen zituen arazo honetan: atzeragarritasuna mugatzen duten erregelak onargarriak dira Rewe eta San Giorgio aferen baldintzak betetzen badira.

Johnson II erabaki honetan Auzitegiak dio Emmott afera benetan ezberdina dela (distinguishing edo bereizketa teknika) eta beraz ezin duela precedente bezala funtzionatu kasu hartan eskaera ezin zelako ezta aurkeztu ere (epea amaituta zegoen direktibaren aplikagarritasuna gertatu baino lehen), eta Johnson-II aferan ordea, eskaera onartu egin da, baina ezin da atzera luzatu, hau da eskaera egin baino lehenagoko egoerara. Direktibatik jarraitzen diren eskubideak egikaritu daitezke eragozpenik gabe eta Johnson andeari ez zaio ukitzen SDA jasotzeko eskubidea eskaera egiten duen unetik aurrera. Ez hori bakarrik, onartzen zaio eskaera egin eta urtebete lehenagoraino atzeratzea bere eskaera. Barruko zuzenbide prozesaleko urtebeteko muga erregela zuzenbide komunitarioerikiko konsistentea da barneko erregela prozesalen baldintza bikoitza betetzen duelako: ez du zuzenbide komunitarioan oinarritutako eskaeraren aurka diskriminatzen eta ez du eskaera horiek eragozten edo ezinezkoa egiten.

Egia da, sistema ideal batean direktibak debekatzen duen bereizkeria zuzenbide britainiarraren transizio erregimenean inoiz gertatu izan ez balitz, Johnson andereak SDA indarrean jarri zen une beretik jasoko zukeela laguntza. Beste hitzetan esanda emakumea izan orduko Johnson gizona izan balitz hasieratik jasoko zuen SDA (NCIB ez luke galdu izango eta automatikoki SDA ere jaso zezakeen), eta direktiba bereizketaren aurka jotzen zuen 1984tik. Baina egia da eskaera beranduago aurkeztu zuela. Gauza bat da lehenagotik, alegia 1984tik eskubidea edukitzea, eta beste gauza bat da eskubide horietaz baliatzea eskaera egin gabe. Normalean eskubideetat baliatzea dago eskaera egiten den unetik, kasu honetan 1987an egiten da

eta beraz eskubidea data horretatik egikaritu daiteke. Erregela britainiarrak gogortasun hori lehuntzeko edo, urtebeteko atzeragarritasuna onartzen du. Alde batetik bai SteenhorstNeerings erabakia eta baita Johnson-II erabakia ere etsipentzat jo daitezke, Emmotten hasitako bidean atzerapausu; azken finean pentsatu egin behar da Johnson egoera berdinean gizonezkoa balitz, problemarik gabe jaso izango zuela SDA laguntza. Eta direktibaren helburua da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketarik ez egitea. Bestaldetik erregela britainiarra eta neerlandesa nahiko eskuzabalak dira. Adibidez pertsona batek 1990an istripu baten ondorioz ez gai bilakatzen bada baina eskaera ez badu egiten 1992 arte, sistema askotan eskaera egiten den arte ez da babesik ematen eta hori gogorra da, nahiz eta administrazioari onuragarri suertatu. Sistema britainiarrean edo neerlandarrean pertsona horri laguntza 1991tik emango litzaioke. Pertsona horrentzako onena litzateke ez gai bilakatu den une beretik babesia lortzea, eskaera noiz egin duen begiratu gabe. Baina administrazioarentzat hori nahiko konplikatuia izan daiteke bai kontrolaren aldetik eta baita oreka finantzariaren aldetik.

3. Van Munster afera (C-165/91)

Europa Batasunean langileak Estatu kide batetik bestera mugitu daitezke, eta askotan hala egiten dute, batez ere muga herrietan. Estatu ezberdinetan lan egiten badute segurantza sozialeko erregimen ezberdinen eremupean sartzen dira eta beren egoera konplikatu egiten da, 1408/71 araudiak egoera horiek arautzen ditu. A-Estatu kideak b-Estatu kidean gauzatutako eskubideak kontuan hartu behar ditu, eta testuinguru horretan sartzen da van Munster afera. Afera hau oso interesgarria da, baina ez segurantza sozialean aurrerapauso berri edo handi emateagatik baizik eta berez planteatzen zuen zailtasunagatik: A-Estatu kideak B-Estatu kideko egoera juridiko bat kalifikatzean zer nolako obligazioak dauzka.

Zaila denik ezin uka. Ikusi bestela afera Auzitegi barruan zenbat buelta eman dituen. Hiru urte pasa dira galdaketa egin eta erantzuna jaso arte. Bost kideko areto bati eman zitzaion hasieran baina azkenean osoko bilkurari itzuli zen bigarren entzuketa egin ondoren. Lehen entzuketa batean Batzordea eta Herri Beherek hartu zuten parte. Abokatu orokorrak bi aldiz eman du bere iritzia, lehenbizi 1993ko otsailean eta gero hamasei hilabete beranduago. Urtebete beranduago Auzitegiak kasua berriz irekitzea erabaki zuenean galderak egin zitzaizkien Estatu kide guztiei eta alderdiei.

Johnson bezala, hau ere korapilotsua da oso, eta hemen oso era sistematiko batez aztertzen saiatuko naiz.

1. Aferaren gorabeherak eta galdera

Van Munster jaunak, naziotasun nederlanderrekoa baita, Herri-Beheretan lan egin du 37 urtez eta Belgikan 8 urtez. Jubilazio pentsioa lortu du bai Herri-Beheretan eta baita Belgikan ere. Bere emazteak ez du inoiz soldatarekin ordainduriko lanik egin.

Herri-Beheretan segurantza sozialak edo pentsio kutzak van Munster jaunari, 1985eko urriaren 1etik jubilazio pentsioa ematen dio, 1985-04-01eko AOW legea aplikatuz. Lege honen arabera ezkonduko langileak 65 urte betetzean bere gutxieneko soldata netoaren %50ko pentsioa jasotzen du. Bere ezkontkideak ez badu soldatarik eta 65 urte baino gazteago bada, orduan langile ohiaren pentsio hori beste %50arekin handitu daiteke. Ez badago ezkonduko, orduan %70a jasoko du. Pentsio hauek ezin dira errefuxiatu. Lege hori aplikatuz Herri-Beheretako pentsio-kutzak van Munster jaunari bere soldataren %100a eman dio, erdia pertsonalki eta beste erdia bere emazteagatik.

Belgikan ere van Munster jaunak 1985ko urriaren 1etik pentsioa jasotzen du. Belgikan, 1967-10-24ko arrête royal n° 50ren 10 (1) artikulua arabera, ezkontkideak ez badauka bere soldata edo diru iturri propiorik orduan langile ohiari kalkulatu den kopuru baten %75a ematen zaio (taux de ménage edo "bikote neurria"); baina ezkontkideak bere soldata edo pentsio propioa badu %60 ematen zaio (ataux d'isolé, "bakarkako neurria"). Ezkontkideak ordea bere "jubilazio pentsioa edo hori loturiko laguntza" (pension de retraite ou avantage en tenant lieu) errefuxa dezake eta horrela langile ohiak bikote neurria beregana dezake. Legea aplikatuz van Munster jaunari Belgikako pentsio-kutzak "bikote neurria"ren araberako pentsioa eman dio bere zortzi urteei zegokion kopuruan.

1987ko urriaren 10an van Munster andereak 65 urte betetzen ditu, eta orduan Herri-Beheretako segurantza sozialak bere pentsio autonomia ematen hasi zaio bere ezkontkidearen soldataren %50a, ordura arte bere senarra pentsioaren gehigarri bezala jasotzen zuena. Une horretatik van Munster jaunak ere %50a jasotzen hasi zen. Beraz bikotearen diru sarrerak berdin gelditu dira, baina bi ezkontkideei erdibana esleituz. Herri-Beheretako Segurantza Sozialak egoera berriaren berri ematen dio bere kide belgikarrari, Office nationale de pensions-i eta azken honek 1988-02-02an erabakitzen du van Munster jaunari 1987-10-1etik "bakarkako neurria" aplikatzea eta ez "bikote neurria", van Munster andereak "jubilazio pentsioa edo honi loturiko laguntza" jasotzen duelako.

Van Munster jaunak erabaki horren aurkako errekurtsioa aurkeztu du, eta Antwerpengo lan auzitegiak Justizia Auzitegiari galdera egiten dio ea arrété royal n° 50 zuzenbide komunitarioarekin bateragarria ote den, alegia tratatuarekin edo 79/7 direktibarekin, eta ea van Munster andereak jasotzen duen pentsioa langile ohiaren pentsioaren gehigarritzat jo behar den ala bestela jo behar ote den.

II. Justizia auzitegiaren erantzuna

Auzitegiak egiten duen lehenengo gauza galderak interpretatzea da. Lehenengo galdera Belgikako legearen zuzenbide komunitarioarekiko bateragarritasunari buruzkoa da, eta bigarrena lege horren egoera jakin bati, van Munstertarrenaren pareko egoerari, aplikatzeari buruzkoa.

Lehenengo galdera ez da zaila. 79/7 direktiba ez da aplikatzen. Bere 7 (1,c) artikulua Estatu kideei baimena ematen die direktibaren aplikazio eremutik ezkontkideen eskubide deribatu bezala lorturiko pentsioak kentzera. Langileen joan etorri askeari dagokionez, tratatuko 51. artikulua Estatu kideen segurantzaren sozialeko erregimenen arteko ezberdintasunak onartzen ditu. Kasu honetan arau belgiarra berdin aplikatzen zaie belgikarrei eta beste Estatu kideetarako eta beraz ezin da langileen joan etorri askearekiko oztopotzat jo. Zuzenbide komunitarioaren ikuspegitik arau belgiarra baliozkoa da.

Bigarren galdera da zailena. Administrazio eta epaile belgiarrek hemen jokoan dagoen arauaren antzeko bat aplikatzean eta beste erregimen ezberdin baten arabera emandako pentsio edo laguntza kalifikatzean zuzenbide komunitarioaren arabera interpretatu behar al dute beren legea? Beste hitzetan esanda, epaile belgiarrek arau belgiarra aplikatu behar du eta arau hori, ikusi dugunez, baliozkoa da. Baina beste A-Estatu batean sortutako egoera kalifikatzean bere B-Estatuko kategoriak jarraitu eta aplikatu behar al ditu ala kontutan hartu behar al du zuzenbide komunitarioak lortu nahi dituen helburuak, alegia langileen joan-etorri askea eta gizonezko eta emakumezkoen arteko tratu berdintasuna?

Galdera honi ekinaz, Auzitegiak egoeraren xehetasunak gogoratzen ditu, alegia kasu honetan van Munster andereak ez duela pentsioa jasotzen lana egin izanagatik baizik eta 65 urte bete dituelako eta jasotzen duen pentsioa van Munster jaunari kentzen zaion %50 dela eta bikotearen diru sarrerak ez direla batere aldatu, van Munster andereak ezin duela bere pentsio nederlandarra errefuxiatu, eta azkenik Herri-Beheren beren legea aldatu zutela direktibaren hildotik.

Segituan Paraschi aferan (C-349/87, 1991ko Rec. 1-4501 orr. 22. puntua) jasotako printzipio garrantzitsu batez gogoratzen du, alegia tratatuak lortu nahi duena dela Estatu kide ezberdinetan lan egin izanagatik langileek galerarik ez izatea, bestela langileen joan-etorri askea kolokan jartzen da. Eta oraingo aferan badirudi langile migratzaileari Estatu baten araua langile ez migratzaileari aplikatzen zaion era berean aplikatzeak ustegabeko ondorioak dauzkala, tratatuko 48-51 artikuluekiko uztargaitzak direnak, eta hau langile migratzailearen pentsioetarako eskubideak bi Estatu kideetako erregimen ezberdinek gobernatzen dutelako, Belgikako erregimenean ezkontkideak bere pentsio propioa jasotzen duenean asumitzen da bikoteak bere diru sarrerak gehitzen dituela eta horregatik kentzen zaio langile ohiari bere bikote neurria, bakarkako neurria pasa eraziz, eta ezkontkideak bere pentsio propioa errefuxia dezake, langile ohiak bikote neurria berriz jasotzea nahi badu. Herri-Beheretako erregimenak 65 urte betetzen direnean ezkontkide bakoitzari kopuru berdina ematen zaio, baina bikoteak diru sarrera gehiago jaso gabe.

Ezberdintasun horren aurrean tratatuko 5. artikuluko elkarlan leialeko obligazioak Estatu kideetako autoritateak lotzen ditu, 48. artikuluko helburuak gauza ditzaten. Obligazio honen ondorioz, autoritate horiek ikusi behar dute ea beren araua berdin aplikatu dakioken langile migratzaileari eta langile ez migratzaileari, langile migratzaileari kalte egin gabe edo bere joan etortzeko eskubidea oztopatu gabe. Epaileak bere arauari zuzenbide komunitarioarekiko koherentea den interpretazioa eman behar dio, ahal duen neurrian (Murphy afera, 157/86, 1988ko Rec. 673 orr., 11. puntua; Marleasing afera, C-106/89, 1990eko Rec. 1-4135 orr., 8. puntua eta Faccini Don afera, aldizkari honetako azkeneko kronikan bildua, 1994ko Rec. I-3325 orr., 26 puntua).

Beraz bere zuzenbideko xedapena aplikatzeari begira beste Estatu kide baten erregimenpean emandako segurantzaren sozialeko ordainketa bat kalifikatzean epaileak bere legea tratatuko 48-51 artikuluen arabera interpretatu behar du, bere interpretazioaren ondorioz langile migratzailearen joan etorrirako eskubidea eragotzen ez dela saiaturik.

Ikusten denez erabakia nahiko anbigua da. Ez du gauza gehiegi esaten eta esaten duena oso kontu handiz esaten du. Halere erabaki garrantzitsua da. Marleasing aferan Auzitegiak esanda zeukan epaileak saiatu behar direla beren barneko zuzenbidearen zuzenbide komunitarioaren arabera ahal den neurrian interpretatzen, azken honek lortu nahi dituen helburuak lortzen saiaturik.

Oraingo aferan printzipio horri beste ñabardura gehitzen zaio, alegia bere Estatu kide baten zuzenbidea aplikatzean beste Estatu kide baten zuzenbidearen arabera sortutako egoera bat kalifikatu behar badu, epaileak kontutan hartu beharko du bere interpretazioaren ondorioa zein den eta saiatu egin behar da ondorio hori zuzenbide komunitarioak lortu nahi dituen xedeekin bateragarria dadila. Printzipio honek zailtasunak baditu epaileari beste Estatu kide baten zuzenbideak aztertzea exijitzen baitio, kasu honetan epaileak jakin behar zuen van Munster bikoteak ez zuela diru sarrera gehiago jaso van Munster andereari pentsioa eman zitzaionean, Jakin beharko du van Munster andereak jasotzen duen pentsioa van Munster jaunaren pentsioaren beste erdia dela, etab.

Baina guzti hori nola jakingo du epaileak. Hizkuntza bera jokoan dagoenean, kasu honetan bezala, errazagoa da, baina demagun arazoa Espainia eta Danimarkaren artean gertatzen dela. Zuzenbide komunitariotik garbi dago zein den lortu nahi den helburua, alegia Estatu kide batetik bestera lana dela eta mugitu izanagatik langile migratzailea ez dadila kalteturik suertatu. Interesgarria da nola afera honetan autoritate nederlanderrek beren kide belgikarrei van Munster jaunaren egoeraren berri eman dioten, eta informazio horren gain autoritate belgikarrek nola ondorio okerrak atera dituzten. Agian autoritate nederlanderrek garbi azaldu behar zieten beren kide belgikarrei van Munster bikotearen pentsio egoeraren aldaketak zer suposatzen zuen hain justu.

4. X afera (C-404/92 P)

Europar Elkarte edo Komunitateen funtzio publikoan, besteetan bezala, kontratatua izan baino lehenago azterketa medikoa egiten da, langile berria lanerako gai ote den jakiteko bide ematen duena. Horretarako Europa Batasuneko Erakundeek beren sendagile berezia daukate.

Azterketa medikoan zehar nahiko kontrol zehatza eta sakona egiten da. Beste gauzen artean txizaren eta odolaren azterketak egiten dira. Ohizkoa da azterketa egiten duen langile gaiari SIDA eho IHESa (VIH antigorputzen) detektatzeko azterketa beste odol azterketekin batera egitea nahi ote duen galdetzea.

I. Gertakariak

X jaunak ezetz esan zuen

Halere bere azterketa egin zenean Batzordeko sendagileak oso itxura gaixoa sumatu omen zion eta bere inmunitate sistema aztertzeari ekin zion T4/T8 deituriko kalkulua eginez. Sendagileak emandako aholkuan X jauna daktilografo lanerako ez gaitzat jotzen zen. Sendagileak X-i eskatu zion bere ohizko sendagilearen izena ematea aurkitu zituen ez ohizko sintomen berri sendagile horri emateko. Batzordeko arduradunak X-i jakin erazi zion ezin zela kontratatua izan bere gaitasun ezagatik. Orduan X-en sendagilea, P doktoreak eskatu zuen egindako laborategi azterketen emaitzen kopia. X-ek bere aldetik sendagile batzordekiak bere kasua aztertzea eskatu zuen (hau Europar Komunitateen funtzionarien estatutuaren 33. artikuluan aurreikusten baita). P. doktoreak batzordekiko buruari jakin erazi zion Batzordeko sendagileak alde batetik Xek full blown AIDS edo azken aldiko IHESa zeukala esatean diagnostiko errore bat egin zuela eta bestaldetik Xi IHESa detektatzeko azterketa praktikatu egin ziotela bere borondatearen aurka.

Batzordeko zerbitzu medikuaren buruak Xi jakin erazi zion bere kasua aztertzeko batzordea bilduko zela eta eskatu zion zeuzkan txosten edo dokumentu mediku guztiak bidaltzeko. X-ek erantzun zuen ez zeukala horrelako dokumenturik, inoiz ez zelako benetan gaixorik izan. Batzordekiak Batzordeko sendagilearen aholkua berretsi zuen eta honen berri eman zitzaion X-i. Honek erreklamazioa aurkeztu du baina Batzordeko administrazio zuzendari orokorrak erantzun zion T4/T8 azterketa besterik ez zitzaiola praktikatu. Beste errekurtsioak aurkeztu zituen X-ek baina alperrik. Azkenean Europar Komunitateen Lehen Instantziako Auzitegian aurkeztu zuen akzioa, hau funtzionarien kasuak ezagutzen dituen izaki.

II. Lehen instantziako auzitegiko erabakia (T-121/89) eta Helegitea

X-ek eskatzen du Auzitegiak Batzordearen erabakia, daktilografo lanposturako kontratatzeari uko egiten diona, bertan behera utz dezan. Halaber eskatzen du Batzordeak indemniza diezaion sortutako kalteengatik gehi interesak

(10 000 000 BFR guztira). Lehen Instantziako Auzitegiak X-en errekurtsioa ukatu du. Epai honen aurka hiru zio nagusi aurkezten ditu X-ek bere helegitean: Europar Giza Eskubideen Ituneko 8. artikulua babestutako intimitate eskubidearen urrapena, epaiaren argumentazioan legokeen kontraesan bat eta defentsarako eskubideen urrapena. Justizia Auzitegiak lehen zioa besterik ez du aztertzen.

Lehen Instantziako Auzitegiaren ustez, X aztertua izan den eran eta lanerako ez gaitzat joa izan den moduan ez da bizitza pribaturako eskubidea urratu, Ituneko 8. artikulua babesten duen heinean, nahiz eta egia izan aztergaiaren nahiaren aurka edo bere onarpenik gabe IHESa azterketa praktikatzeko artikulua horren aurkakoa litzatekeela. Halere X-ek ez du frogatu IHESa detektatzeko azterketa praktikatu egin zaiola, berak jakin gabe. Ez du frogatu Batzordeak kontratatua izateko azterketa hori exijitzen diola. Eta ez du frogatu VIH antigorputzak detektatzeko zeharkako azterketa praktikatu zaiola, alderdi guztiak ados baitaude T4/T8 linfozitoen azterketa hematologikoak ezin duela seropositibotasuna adierazi. Gainera kasu jakin honetan Lehen Instantziako Auzitegiaren ustez Batzordeko sendagileak T4/T8 azterketa praktikatzeko zinez eska zezakeen, azterketa medikoaren eta anamnesisen garaietan X-engan sumatutako ez ohizko sintomak ikusi ondoren.

X-en ustez berari praktikatu zaien azterketa IHESa detektatzeko zeharkako azterketa izan da IHESak jota dauden gaixoei beren gaixotasuna nola garatzen ari den jakiteko praktikatzeko zaien bezalakoa. Baina Batzordearen ustez problema hau faktuzkoa da eta ez zuzenbidezkoa eta beraz Justizia Auzitegiak ezin da horretan sartu.

X-en ustez T4/T8 azterketa praktikatzeko, berak jakin edota onartu gabe, bere osotasun fisikoari egindako erasotzat jo daiteke, Giza Eskubideen Europar Ituneko 8. artikulua aurkakoa izaki.

Batzordearen ustez lanerako kontratu aurreko azterketa medikoa egiten duen pertsonak inplizituki onartzen duela sendagileak bere betebeharrak egin dezan eta bere osasun egoera ezagutzeko behar diren azterketa guztiak praktika ditzan. Gainera IHESa birusa edukitze soilak, sintomak eduki gabe, ez du esan nahi lanerako ez gai aitortzea. Baina sintoma klinikoak agertzen direnean sendagileak zinez pentsa dezake odolaren linfozito-egoera aztertzea komeni dela immunitate defizita detektatzeko, defizit horren jatorria zein den galdetu gabe. Beraz sendagileak bere zeregina bete zezan azterketa beharrezkoa zenez gero, asumitu egin behar da X-ek tazituki onartu egin zuela.

III. Justizia auzitegiko epaia

Justizia Auzitegiak lehen lehenik eta Batzordea/Alemania afera aipatuz (C-62/90, 1992ko Rec. I-2572 orr., 23 puntua) bizitza pribatuaren errespetua Komunitateen ordenamendu juridikoak babestutako oinarriko eskubideetako

bat dela gogoratzen du. Eskubide honek norberaren osasun egoera isilpean gordetzeko eskubidea besarkatzen du. Halere eskubide horiek muga daitezke interes orokorreko helburuengatik eta eskubideen mamia ukitzen ez den bitartean.

Kontratazio aurreko azterketa medikoaren atzetik Elkarteen erakundeen zilegizko interesa dago, hauek beren zeregina aurrera eraman dezaten, baina interes eta zeregin hauek ez dute bidezkatzen interesatuaren borondatearen aurkako azterketak bidezkotzea. Halere, honek sendagileak beharrezkotzat jotzen duen azterketa praktikatzeari uko egiten badio, ezin dira Erakundeak behartu bera kontratatzeko arriskua asumitzera.

Lehen Instantziako Auzitegiak azterketa mediko jakin bat praktikatu ahal izateko interesatuaren baimena exijitzea IHESa kasu zehatzetarako bakarrik ezagutu du. Baina bizitza pribatuaren errespetuak eskatzen du interesatuaren borondatea guztiz aintzakotzat jotzea, eta kasu honetan X-ek ezetza emana zion IHESa detektatzeko azterketa praktikatzeari. Halere linfzitoen azterketak Batzordeko sendagileari informazio adina eman zion X-ek IHESa izan zezakeela pentsatzeko.

Beraz helegitea onartzen da eta Batzordearen erabakia, zeinaren bitartez X-i esan zitzaion ez zela kontratatua izateko gai, deuseztatu egiten da. Indemnitatzeari dagokionez ordea Justizia Auzitegiak ez du eskaera onartzen X-ek ez zuelako eskaera egin beharrezko administrazio jarduera, Funtzionarioen Estatutuen 90 artikuluan aurreikusitakoa, jarraituz.

IV. Iruzkina

Ituneko 8. artikulua bizitza pribatua edo intimitatea babesten du. Printzipio hori interpretatuz Justizia Auzitegiak erabakitzen du osasun egoeraren isilpekotasuna bizitza pribatuaren adierazpena dela. Eskubide hori erabatekoa ez denez, mugatua izan daiteke bidezkoturiko arrazoiak jokoan daudenean, baina muga horiek ezin dute eskubidearen mamia ezereztatu eta neurritz barrukoak izan behar dute gizarte demokratiko batean. Orain arte ez da gauza berririk esaten, Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren doktrina ildo beretik baitoa.

Berria dena da Auzitegiak eskubide orokor honetatik ateratzen duen ondorioa, alegia pertsonak eskubidea duela bere buruari azterketa medikoak praktika diezazkieten ukatzeko. Azterketa medikuei uko egiteko eskubide hau nahiko berria da eta zeresanik emango du. Eskubide erlatiboa da, beste interes eta baloreekin orekatu beharko dena, baina hortxe dago Justizia Auzitegiaren epai batean jasoa.

Eskubide hau edukitzea bera pertsonatasunaren kontzeptzio jakin baten adierazpena da eta zentzu horretan interesgarria da epaia. Baina eskubidea normalean egikarituko da egoera jakin batean. Pertsona bat ez bada ongi sentitzen eta sendagilearengana joaten bazaio senda dezan, orduan sendagileak

bere lana egin beharko du pertsona hori sendatzeko. Kasu horretan azterketa ezberdinen bidez sendagileak biltzen duen informazioa ez zaio normalean hirugarren pertsona bati interesatzen. Nire ustez halako kasuetan osasun egoeraren isilpekotasunerako eskubideak hedadura mugatua dauka. Problema sortzen dira hirugarren batek interesa daukanean, dela lan emalea dela aseguratzailea, dela administrazioa. Orduan erlazio juridikoa ez da bakarrik ematen sendagile eta gaixoaren artean. Sendagilearen zerbitzuak beste hirugarren batek eskatzen ditu, eta kasu horretan osasun egoeraren isilpekotasunak erlazio funtzional batean sartzen da. Sendagileak pertsona baten osasuna behar bezala ezagutzeko azterketa jakin bat praktikatu behar badu pertsona horrek azterketari uko egin diezaioke. Baina orduan sendagileak ezin izango du bere zeregina behar bezala bete eta hirugarren horrek ezin izango du bere erabakia behar bezala hartu.

Sendagileak pazienteari azaldu behar al dio zer nolako azterketak praktikatuko dizkion? Norainoko informazioa eman beharko dio pazienteari? Praktikatu nahi duen azterketa bakoitzaren berri eman beharko al dio? Eskubidearen praktikotasuna zenbait kasutan kolokan jartzen da.

Eta zer gertatzen da pazienteak azterketa baten praktikari uko egiten dionean? Justizia Auzitegiak dio Erakundeek (enpresak) pertsona bat kontratatu baino lehen pertsona horren osasun egoera ezagutzeko aukera daukatela pertsona hura lanerako gai den ala ez jakiteko, eta horretarako aurretiazko azterketa medikoa dago. Hemendik jarraitzen da pertsona bat kontratatzeari uko egin diezaioketela Erakunde horiek ez badakite pertsonaren osasun egoera nolakoa den, alegia ez badakite pertsona hori lanerako gai izanen den ala ez. Gauzak horrela, baten batek galde dezake zertarako balio dion pertsonari osasun egoeraren isilpekotasunerako eskubideak.

Lehen Instantziako Auzitegiak esanda zeukan onarpena edo baimena IHESa detektatzeko azterketari zegokionean bakarrik gertatzen zela eta beste kasuetan pertsonak ezin ziola azterketa jakin baten praktikari uko. Proposamen honekin konparatuz Justizia Auzitegiaren formulazioa landuagoa da, baina praktikan antzeko emaitzara eramanez.

Bestalde epaiak erakusten du zein zaila den gertakariak eta zuzenbidea helegite batean guztiz bereiztea. Kasu honetan zailtasuna dago epaiaren zati jakin batean non Auzitegiak dioen T4/T8 linfozitoen azterketa kasu jakin honetan IHESaren inguruko ondorioak ateratzeko erabilia izan zela. Justizia Auzitegia kontu handiz ibili da hemen berari komeni zaizkion gertakariak Lehen Instantziako Auzitegiaren ahoan jarritz: "dado que el recurrente se había negado expresamente a someterse a una prueba de detección del SIDA, el mencionado derecho [al respeto de la vida privada] debía impedir que la administración realizara cualquier tipo de prueba que pudiera desembocar en una comprobación o en sospechas sobre la existencia de dicha enfermedad... Ahora bien, de las comprobaciones reseñadas en la sentencia del Tribunal de Primera Instancia se sigue que el análisis linfocitario

de que se trata proporcionó al médico asesor indicios suficientes para llegar a la conclusión de que era posible que el candidato fuera portador del virus del SIDA".

5. Net Book edo Publishers' Association afera (C-360/92 P)

Lehiaketaren inguruko afera dugu honakoa. Jakina denez Batzordeak eskuduntza garrantzitsuak dauzka arlo honetan. Hemen ez gara horien berri ematen hasiko. Baina agian merezi du gogoratzeak Batzordearen kontrol zereginak datu ekonomikoak baloratzea suposatzen duela. Enpresa edo agente ekonomikoen eta Batzordearen arteko gatasketaz Lehen Instantziako Auzitegiak ezagutzen ditu eta honek gertakariak tinkatzen ditu, alegia datu ekonomikoak eta datu horiek kalifikatu edo preziamendua egitean Batzordeak diskrezio eremua dauka. Geroztik, Lehen Instantziako Auzitegiaren epaiaren aurkako helegitea aztertzean Justizia Auzitegiak gertakari gordinen (datu ekonomikoak), hauen preziamendu edo kalifikazioaren eta arau juridikoen arteko oreka delikatu eta konplikatu bilatu egin behar du. Elementu hauek agertzen dira Publishers afera honetan.

I. Gertakariak

Britainiar liburuaren industria Komunitate edo Elkarteko eta mundu osoko garrantzitsuenetakoa da: urtean 40 000 argitalpen berriekin. Britainia Handian argitaletxe gehienak %70tik 80ra Publishers' Association edo Ar-gitaletxeen Elkarteko kideak dira eta argitalpen berrien %80a hauek argitaratzen dituzte. Argitaraturiko liburuen %65a britainiar merkatuan saltzen dira. Esportazioen %25 a beste Estatu kideetara doa eta %4,5a Irlandara. Bestalde Irlandara inportatzen diren liburuen %80a Britainia Handitik dator eta inportazio hauek Irlandan saltzen diren liburuen %50a osatzen dute. Argitaletxeen Elkartearen baitan bi motatako Net Book Agreements (NBA) edo salneurri tinkoko akordioak egiten dira: kideen artekoak eta kide ez direnen artekoak. Akordioak antzekoak dira. Kideak direnak libre dira akordio jakin batean ez sartzeko. Akordioek liburuen gutxienezko salneurria tinkatzen dute. Oso zorrozki zehaztutako salbuespenetan bakarrik saldu daiteke liburu bat tinkaturiko salneurria baino gutxiagotatik. Akordioa Britainia Handian eta Irlandan kokaturiko bai argitaletxeak eta baita liburudendak ere lotzen ditu behin argitaletxe batek bere liburua salneurri tinkoan zabaltzea libreki erabakitzen duenean. Britainia Handian saldutako edo Irlandara esportaturiko liburuen %75a salneurri tinkoko liburuak dira.

Britainia Handian lehiaketaren zuzenbidean autoritatea duen Restrictive Practices Courtek behin baino gehiagotan aztertu du NBA, akordioei beti argi berdea eman diolarik, eta hau akordioak suposatzen dituen abantailengatik: salneurriak nahiko baxuak mantentzen ditu, stocka daukaten liburudenden kopuru altua mantentzen du eta argitaratzen diren tituluen ugartasuna eta aniztasuna mantentzen ditu.

Europar Komunitateen Batzordea ordea ez zen aburu berekoa. Bere 89/44/CEE (1988-12-12ko, DO 1989 L 22: 12) erabakian xedatu zuen NBA hauek tratatuko 85 (1) artikulua aurkakoak zirela, Estatu kideen arteko liburu salerosketari aplikatzen zaien heinean (erabakiaren 1. artikulua). Gainera Batzordearen ustez NBA hauek ez ziren sartzen 85 (3) artikulua aurreikusitako salbuespenen artean, murrizpenak ez omen zirelako nahitaezkoak goian aipatutako helburuak lortzearren (erabakiaren 2. artikulua). Erabakia-ren 3. eta 4. artikuluetan Batzordeak Argitaletxeen Elkarteari, PAri, agintzen dio NBAak bertan behera uzteko eta beste akordio berri bat proposatzeko.

Erabaki honen aurkako errekurtsoa ezarri zuen PAK.

II. Lehen instantziako auzitegiako epaia eta helegitea

Lehen Instantziako Auzitegiak erabakiaren baliozkotasuna berretsi zuen. Batzordearen erabakiak salneurria tinkatzeko akordiotzat jo zuen, Estatu kideen arteko (Britainia Handia- Irlanda) trukearen gain eragina zuena eta beraz salneurrien inguruko lehiaketa oztopatzen zuena.

PAK helegitea aurkeztu du honako helburuekin: Lehen Instantziako Auzitegiak Batzordearen erabakia berretsi zuen eta Batzordeak egindako balorazioak ontzat jo zituen. Alta balorazio horiek erraturik zeuden zeren eta esaten zuten akordio hainbat elementu ez zirela ezinbestekoak: NBAren lehiaketa murrizketak, liburutegiei eskaintzen zieten deskontuak, liburu klubei emandako baldintzak eta urteko liburu salmenta (liburuaren eguna) arautzen zuten baldintzak.

Hona hemen zioak. Alde batetik zuzenbidezko errorea egin dute bai LI Auzitegiak eta baita Batzordeak ere esaten baitute PAK taldeko sistema orokorra ezarri duela liburu jakin batentzako salneurri jakin bat liburudenda guztiei inposatuz, eta hori ez da egia zeren argitaletxeek banan banan erabakitzen dute liburuaren salneurria.

Bigarren zioan PAK dio LI Auzitegiak huts egin du Batzordeak egindako "nederlandarazko liburu afera"ren aipua afera honekin zerikusirik ez duela ez konstatatzean. Gainera Batzordeak ez du ezertarako kontutan hartu NBAk ezinbestekoak direla irakurle irlandarrak irakurle britainiarrek dauzkaten abantaila berberetaz profitatu daitezen. Eta hutsa hau LI Auzitegiak barkatu dio Batzordeari.

Hirugarren zioak dio zuzenbidezko errorea egin duela LI Auzitegiak Batzordearen ikuspegia berretsi duenean, zeinaren arabera NBA akordioak ez diren ezinbestekoak dauzkaten helburuak lortzeko. Auzitegiak NBAren helburuak aztertu behar zituen, eta segituan ea NBAk helburu horiek betetzen zituzten aztertu, eta azkenik aztertu behar zuen ea lehiaketa gutxiago murriztuko lukeen beste biderik ba ote zegoen helburu horiek lortzeko.

Laugarren zioaren arabera LI Auzitegiak gaizki interpretatu du tratatuko 85 (3) artikulua, esan baitu PAK, NBAren ezinbestekotasuna frogatzean,

ezin zuela aipatu akordio horien desegiteak irlandar merkatuari lekarzkiokoen eragin ezezkorrak.

Bosgarren zioa da LI Auzitegiak zuzenbidezko errorea egin duela merkatu britainiarrari bakarrik aplikatuko balira NBAren sistema desegingo zirelako argumentua baztertu duenean. Izan ere PAK ez du inoiz horrelakorik esan!

Seigarren zioan PAK LI Auzitegiaren zuzenbidezko erroreak inbokatzen ditu, Restrictive Practices Courten epaien inguruan. PAK ez du inoiz esan Batzordea lotzen zutenik. Baina Batzordeak ez ditu epai horiek aintzakotzat hartu.

Zazpigarren zioan PAK dio LI Auzitegiak NBAren ezinbestekotasunaren aldeko lau argumentuak banandurik aztertu dituela, nahiz eta argumentu horiek elkarrekin aztertzekoak izan,

Azken zioan PAren ustez LI Auzitegiak zuzenbidezko errorea egin du alde batetik Batzordeko erabakiaren eta bestaldetik Batzordeak Kontseiluari liburuen salneurria tinkatzea stock handiko liburudendentzako elementu garrantzitsua delako esaten dion komunikazioaren arteko kontraesana konstatatu ez duelako.

III. Justizia auzitegiko epaia

Justizia Auzitegia hirugarren ziotik hasten da, eta hau laugarren eta seigarrenekin lotzen du. LI Auzitegiak ez du kontutan hartu hizkuntzazko gune bakarra eta honekin datorren liburuaren merkatu bakarra jokoan daudela. Datu honi muzin egitean LI Auzitegiak Batzordeak NBAren aplikazioak suposatzen dituen lehiaketa murrizketen ezinbestekotasunari buruz egindako balorazioak ezin izan ditu behar bezala aztertu.

Okerrena da LI Auzitegiak PAren argumentu garrantzitsu bat, NBAren merkatu irlandarren gain dauzkan eragin baikorren ingurukoa, baztertu egin duela, alegia, "que la PA, association regroupant des éditeurs au Royaume Uni, n'est pas fondé á se prévaloir des éventuels effets négatifs qui pourraient survenir sur le marché irlandáis, même si ce marché appartient á une zone linguistique commune". Justizia Auzitegiaren ustez iritzi hau zuzenbidezko errore bat da. 85 (3) artikuluan ez dago ezer Estatu kide batean egindako akordio batek beste Estatu kideen lurraldean izan ditzakeen eragin baikorrak akordio horren alde aipatzea debekatzen duenik, izan ere halako argumentu bat baztertzekak Komunitatearen oinarritzko helburuen aurka eta merkatu bakarra eta amankomunaren ideia berberaren aurka dijoa.

Hori nahikoa zaio Justizia Auzitegiari LI Auzitegiko epaia deuseztatzeko. Hortik aurrera epaian Justizia Auzitegiak berak pikatuko du auzia PAK Batzordearen erabakiaren aurka ekarritako argumentuak aztertuz. Hemen oso modu telegrafikoan emango dugu epaiaren zati honen berri.

Justizia Auzitegiak dio Batzordeak PAren argumentuak seriotasun handiz aztertu behar zituela adibidez Restrictive Practices Court-ek erabakitakoa

aztertu behar zuen, baina Batzordeak epai horiek aipatu besterik ez du egin. Epai horiek azaltzen zuten nola, hizkuntza amankomuneko gunea ikusirik, NBAek ondorio baikorrak zituzten liburuaren merkatu irlandarraren gain.

Gainera Batzordeak bere erabakian asumitu zuen NBA eta nederlanderazko liburuaren akordioaren kasua berdina zirela eta hori ez da zuzena bigarren akordio honetan argitaletxeen eta liburudenden elkarrekin flamandarrek eta nederlandarrek argitaletxea behartzen zuten, argitalpen guztientzako, kontsumitzaileari derrigorrezko salneurri tinkoa ezartzea, eta lehiaketa ezinezkoa egiten zuten. NBArekin ordea argitaletxeak erabaki dezake liburu bat akordioaren arabera komertzializatuko duen ala ez. Nederlanderazko liburuaren akordioari egindako erreferentzia horrek beraz bidezkozearen oker bat da.

Justizia Auzitegiak beraz, Batzordearen erabakiaren bigarren artikulua baliogabetzen du, eta ondorioz baita hirugarren eta laugarren artikulua ere, eta Batzordea prozedurazko kostuak ordaintzera kondenatzen du, PARENak—Lehen Instanaziako Auzitegian eta Justizia Auzitegian— gehi helegitean PAREN alde agertu diren Clérenak eta Booksellers Association of Great Britain and Irelandenak. Batzordearen alde agertu diren Pentos taldeek ordea beren gastuak ordainduko dituzte.

IV. Iruzkina

Hizkuntza bakarreko merkatu gunearen ideia hau garrantzitsua da liburuaren industriaren inguruan. Ez du esan nahi ingelesa besterik ez dela erabiltzen gune horretan, baina bai ingelesa dela gune guzti horren hizkuntza amankomuna: Erresuma Batua eta Irlanda. Eta liburuaz ari garenean hizkuntzaz ere ari gara. Europar liburuaren merkatu bateratua zentzu horretan oso zaila da, hizkuntza bera bakarra ez izaki. Puntu honetan bereizten dira liburu eta musika diska.

Hizkuntza bakarreko merkatu gunearen ideia hau Estatu kide ezberdinetan aplikatu daiteke eta elementu berri bat dakar lehiaketaren zuzenbide komunitarioan. Normalean zuzenbide komunitarioan jokoan dauden lurraldeak bi izaten dira: Estatu kide barrukoa edo Elkarteko (Estatu kide artekoa). Hauei lurralde berria gehitzen zaie: hizkuntza bereko gunea. Horra hor nederlandera Herri-Beheretan eta Belgikan, frantsesa Frantzian, Belgikan eta Luxembourgen, alemana Alemanian, Austrian eta Luxembourgen, eta ingelesa Erresuma Batuan eta Irlandan. Europa Batasuneko hiru hizkuntza nagusiak halako markatu gunetan aurkitzen dira: alemana, frantsesa eta ingelesa. Gainera gune hauetan normalean Estatu kide handi bat dago eta argitaletxe nagusiak Estatu horretan kokaturik daude: Alemanian, Frantzian eta Erresuma Batuan. Beraz afera honetan jokoan dagoena ez da makala.

Tratatuko 85 artikulua bere lehen paragrafoan debekatzen du Estatu kideen arteko trukeari eragin diezaioketen eta merkatu bateratuan lehia

murriztea, mugatzea edo okertzea helburu edo ondorio duten enpresa arteko hitzarmen eta, bereziki zuzenean edo zeharka bidezko ez diren saltze edo eroste prezioak edo beste edozein merkataritza baldintza finkatzea... Artikulu berberaren 3. paragrafoak posible egiten du lehen paragrafo horren debekua zenbait kasutan salbuestea, hitzarmen edo akordioak ekoizpena edo banakuntza hobetzea helburu duenean, erabiltzaileentzat emaitza irabazietan bidezko partehartzea gordetzen badu eta enpresei ezartzen zaizkien murrizketak helburu horiek lortzeko ezinbestekoak badira eta lehiaketa ezeztatzen ez badute.

Batzordeak, lehiaketaren kontrolaren ardura dauka Elkartea edo Komunitate mailan, alegia Estatu kide bi edo gehiagoren arteko trukea jokoan dagoenean. Lehiaketa murriz dezakeen hitzarmena egiten denean hitzarmen kideek horren berri ematen diote Batzordeari. Orduan Batzordeak hitzarmen horren inguruko erabakia hartzen du normalean. Erabaki hauek, ohi denez, gutxienez bi artikulukoak dira: lehenengo artikuluan Batzordeak konstatatzen du hitzarmena 85 artikulua lehen paragrafoak debekaturiko akordioa dela. Bigarren artikuluan Batzordeak erabakitzen du ea hitzarmena 85. artikuluko hirugarren paragrafoko salbuespenen artean koka daitekeen ala ez. Baiezkotan Batzordeak negative clearance deritzona ematen du, halako oniritzia eta hitzarmena aplikatzen da. Ezezkotan orduan hirugarren artikulua egoten da hitzarmen kideei akordioa bertan behera uztea edo modu jakin batean aldatzea agintzen diena, eta laugarren artikulua batean agintzen die hitzarmen berrien testua Batzordeari jakin eraztea.

Irlandako liburu merkatua nahiko txikia da. Liburuaren saltze prezioa finka dezaketen Net Book Agreementsek ordea Irlandan ere aplikatzen dira eta zentzu horretan Estatu kideen arteko trukearen gain eragina du NBAk. Beraz garbi dago MBAek lehiaketa murrizten dutela. Batzordeak hala erabaki zuen eta erabakiaren lehen artikulua ez du inoiz inork kolokan jarri. Publishers' Associationen ustez hitzarmena hirugarren paragrafoean erortzen da, NBAen eragina Irlandako merkatu horretan baikorra izaki.

Zeintzuk dira NBA bezalako akordioen abantailak? Akordioak liburuaren banakuntza hobetzen du Irlandan, Irlandar irakurleek abantailak ateratzen dituzte akordiotik, eta ez dago beste biderik helburu horiek ziurtatzeko. Gainera NBAek ziurtatzen dute liburudendek stockean liburu asko gordeko dituztela eta liburudenda asko negoziatioan jarraituko dutela gutxienezko prezio hori ziurtatuta egonik, liburudenda batzuk hasten badira prezioak jaisten, orduan bakarrik errentagarri diren liburuak, asko salduko direnak bakarrik hartuko dituzte eta liburuaren eskaintza murriztuko da, eta horiekin batera liburudenda batzuk itxi beharrean aurki daitezke. Irlandako argitaletxeen Elkartek Clék gainera jakin erazi zuen, NBA bezalako akordioek posible egiten zutela irlandar gaelikoz argitaraturiko liburuaren banakuntza liburudendetan.

Beraz PAren ustez NBA hitzarmenei Tratatu 85 (3) artikularen eskutik, artikuluko bereko lehen paragrafoko debekua ez zaie aplikatzen. Argumentu hau da Justizia Auzitegiak ontzat jo duena, Batzordeko erabakiaren bigarren artikulua baliogabetuz. Justizia Auzitegiak hizkuntza bereko merkatu gunearen existentziari garrantzia eman dio, datu honetatik jarraitzen diren ondorio juridikoak zeintzuk diren azaldu gabe. Garbi dago Batzordeak datu hau oso kontutan hartu beharko duela, hitzarmenek gune osoan daukan eragina gertutik aztertzea behartuta dagoelarik. Izan ere 1994ko udan Batzordeak argi berdea edo oniritzia eman zion antzeko hitzarmen bati, Austriako eta Alemaniako argitaletxeen eta liburudenden arteko liburuen saltze prezioa tinkatzen duena. Auzitegiak NBAei oniritzia ematea ere testuinguru horretan kokatu behar da.

